Basan bein Aramaixon

Basan bein Aramaixon / Euskomedia Fundazioa (koor.) ; Arantza Ozaeta eta Dibina Arriolabengoa (biltz.);
Belen Moreno **e:** bm@belenmoreno.com (irgile.); Miel A. Elustondo (gainbegirapena). Aramaio: Aramaioko Udala, 2013.
36 or.: ir.; 24 zm.
ISBN:

Debekaturik dago lan honen edonolako erreprodukzioa; baita ere ez dago berau sartzerik inongo sistema informatikotan, edo informazioa bildu edo berreskuratzekobestelakoetan. Igorri ere ezin izango da inolako moduz (elektronikoki, mekanikoki, fotokopiaz, grabaketaz...) Aramaioko Udalaren, Euskomediaren eta Eusko Ikaskuntzaren aurretiko baimenaidatzirik gabe.

Aramaioko Udalak aspalditik erakutsi du herriko tradizioa eta euskalkia berreskuratzeko eta gordetzeko ardura. 2000 urtean atera zuen lehendabiziko beka, herriko nagusien bitartez, urteetan bizirik iraun duen(eta bizirik irautea nahi dugun) hizkuntza ondarea jasotzeko. Ordutik hainbat lan burutu dira eta hainbat material bildu da.

Eskuartean duzun hau osatzeko, egin den azken lana hartu da oinarritzat. Ipuinak, kantak, narrazioak, gertatutako pasadizoak, ... laburtzen dira. Helburua, jaso diren bezala, bertako euskalkian plazaratzea izanik, zabalkunde handiagoa izateko batueraz ere idatzi dira hainbat testu.

Aurrera begira, gure aiton-amonek utzitako altxorra gogora ekartzea, ezagutzera ematea eta erabiltzea gure esku dago, guztion esku!

Ramon Ajuria, *Aramaioko alkatea*

Hona hemen behin halakoan Dibina Arriolabengoak eta Arantza Ozaetak eskura jarri zizkiguten kontakizunak. Beharbada, soiltxo edo edergarri eta luzagarri asko gabekoak irudituko zaizkizue, ahozko esaundak ohi diren moduan. Guk, gure garai hau baino lehen, Luis Villasantek egindako bidea erabili dugu, Graziano Anduagaren Aitonaren uza liburukoa, ahalik eta gehien errespetatuz jatorrizko grabazioa.

Hizkerari dagokionez, Debarrorako idazkera-irizpideak erabili ditugu. Berbak osorik idatzi ditugu, ortografian gehienean Euskaltzaindiak emandako arauei jarraitu diegu, eta morfo-fonologian Aramaixokoa errespetatu dugu.

Miel Angel Eluztondo, Jabier Kaltzakorta, Txipi Ormaetxea

Unibertsaltasuna xume(tasune)an gorde ohi da, eta ahozkoak horren berri badaki.

Eskerriko asko Aramaixoko Udalari. Kontakizunak ahotik belarrira eman zizkigutenei.

Kontakizunok, esan berriro, esan!

Dibina Arriolabengoa eta Arantza Ozaeta

eusko media fundazioa
ARAMAIOKO UDALA ARABA
ASMOZ TA JAKITEZ EUSKO IKASKUNTZA

Kontakizunak

Ure gustetan ez jakon gizona
Anbotoko señorie
Lamiñak
Katu baltza
Sorgiñak txarri-koadrilla itxuran
Martin Abade
Aramaixoko mugie
Regalarme si tienes dirua nahikua
Axeriko eta otsoko
Papargorrixe eta buztenikarie
Hontza zegaittik bizi zan gabez
Hau astue, hau mandue
Txutxurrutxu mañe
Herriko inddertsue
Ostarkue

Ure gustetan ez jakon gizona

Patxike Ibabe

Gizon batek esaten auen: “Ni ez naz ittoko, ittota ez naz hilko!”. Horixe zan berak auken billurre, ittota hiltzekue. Eta beti esaten euskun erreka ingurutik aparte ibiltten zala, sekule ez zala uretara inguretu be egitten. Eta, azkenien palanganan itto ei zan.

Gizon batek esaten zuen: “Ni ez naiz itoko, ni ez naiz itota hilko”. Horixe zen berak zuen beldurra, itota hiltzekoa. Eta beti esaten zigun erreka ingurutik aparte ibiltzen zela, ez zela sekula inguratzen uretara. Eta, azkenean, palanganan ito zen.

Anbotoko señorie

Jesus Mari Elejalde

Nik ezagutu nen gizon bat Anbotoko señorie ikusi auena.

Kontau auen gox baten juen zala, egunsentixen Afastara. Erdi lo aillegau ei zan, eta ardixek jaten ebitzen, eguneroko moduen. Halako baten, egin zala ixiltasun haundi bat, eta ardixek paralizaute moduen geratu zirela. Txorixek be ixilddu zirela, eta Asentzio mendittik su-bola bat agertu zala, buztenaz, Anbotorutz oiena. Ha pasau zan bittertien haan ez zan txitik be entzun. Suzko bolie Anbotora aillegau zanien, barriz, egundoko zaratak izen ziren Anboto inguruen.

Anbotoko señorie, betik traslado!

Nik ezagutu nuen gizon bat Anbotoko Señorea ikusi zuena.

Kontatzen zuen goiz batean joan zela, egunsentian, Afastara.

Eta erdi lo zegoela hara ailegatu zenean eta ardiak beti bezala belarra jaten ari zirela, eta halako batean isiltasun handi bat egin zela, ardiak paralizatuta geratu zirela, txoriak ere denak isildu zirela: Asentsio mendi tik Anbotorantz su-bola bat buztanarekin agertu zela eta hura pasatu zen bitartean ez zela txintik ere entzun. Suzko bola hori Anbotoraino ailegatu zela eta egundoko zaratak izan zirela hor Anboto inguruan.

Anbotoko Señorea, beti traslado!

Lamiñak

Jesus Mari Elejalde eta Maria Etxebarria

Lamiñak Sorginzubin eta Bolintxon ibiltten ziren, errekan, garbiketan. Lamiñak eukien hankak paittarenak, eta gorputze neskarena. Gerrittik behera paittarena. Eta ko ntetan auen pastorearena, zelan enamorau zan mendixen lamiña bateaz. Koba baten agertu jakon neska bat oso guapie eta barriketaldixek egitten zittuen.

Eta juen da pastorie eta amari kontau eutsen, eta amak: “Eum! Juen eta begittu neska horren hankai!

Eta pastorie juen, neskaren hankai begittu... eta lamiñie zan!

Lamiñak urrezko orrazixaz orrazketan euen ulie.

Laminak Sorginzubin eta Bolintxon ibiltzen ziren, errekan, garbiketan. Laminek hankak paitarenak eta gorputza neskarena zuten. Gerritik behera paitarena. Eta kontatzen zuten pastorearena, nola enamoratu zen mendian lamina batekin. Koba batean agertu zitzaion neska bat oso guapa eta berriketaldiak egin zituzten.

Eta joan da amari kontatzera eta amak: “Eum! Neskari begiratu hankei”.

Eta joan da pastorea, neskare hankei begiratu die... eta lamina zen!

Laminek urrezko orraziaz orrazten zuten ilea.

Katu baltza

Patxike Ibabe

Andra asko juntetan ei ziren gabez lanerako, goruetan egitteko. Urrin jueten ziren, distantziak egitten zittuen. Eta beste kontu bat zan, gizon bat geldiketan ei zan goruetan, baiñe gizonak maratilliaz egitten auen, ez goruaz. Eta, itxurie, gizon bat goruetan geldiketan ei zan, eta katu baltz bat tximinixatik behera! Eta, ostera be, katue tximinixatik behera.

Eta halako baten esan eutsen katu horrek: “Gizona eta goruetan? Hartu dau gizonak makilla bat, jo dau katu hori eta esan deutso: “Katue eta barriketan?

Eta hurrengo egunien, auzoko andra bat auen besue apurtute.

Andre asko elkartzen omen ziren gauez lana egiteko, goruetan egiteko. Andreek distantzia handia egiten zuten, urrunera joaten ziren elkartu eta goruetan egiteko. Eta kontu bat zen gizon batek goruetan egiten zuela, baina haiek maratilarekin egiten zuten, ez goruarekin. Itxura denez gizon bat geldiitzen zen goruetan gau beranduan, eta katu bat gauero tximiniatik behera jaisten zen. Eta halako batean katuak esan dio:

–Gizona eta goruetan?

Hartu du orduan gizonak makila bat, jo du katua eta esan dio:

–Katua eta berriketan?

Eman dio makilakada, eta hurrengo egunean auzoko andre bat agertu zen besoa apurtuta.

Sorgiñak txarri-koadrilla itxuran

Maria Etxebarria

Ramonen aittek kontetan dau Maskañora bidien urten eutsiela txarri-koadrilla bat. Eta Ramonen aittek-eta:

–Gabon!



Eta txarrixek, barriz, erantzun eutsiela:

–Gaba gabekuendako, egune egunezkuendako!

Hori esan eutsiela, eta eurak guztiz sustaute, eta desagertu egin jakien aurreko aldien. Eta zirela sorgiñek moduen. Eta etxera juen zirela hormie baiño zurixaguek...

Andramaixa inguruen agertu jakien.

Ramonen aitak kontatzen du Maskañora bidean irten zitzaiela txerri-koadrila bat. Eta Ramonen aitak-eta:

–Gabon!

Eta txerriek:

–Gaua gauekoendako, eguna egunezkoendako!

Hori esan zietela txerriek, eta berak guztiz beldurtuta zeudela eta desagertu egin zitzaizkiela aurreko aldean, eta sorginen modukoak zirela. Eta Ramonen aita-eta etxera joan zirela horma baino zuriago.

Andramaixa esaten den inguruan agertu omen zitzaizkien.

Martin Abade

Kontxi Garitonandia eta Joxe Mari Ormaetxea

Kazarixe zan Martin abade.

Behin, mezie emuten auela, txakurre zaunkeka entzun eta: “Han erbixe! Erbixe!”, bat edo batek esan eutsela, eta mezie emutiari itxi eta txakurraz kazan juen zala abade hori. Martin abade.

Mezie erdizka itxitte martxau auela eta, harrezkero, hor dabil haxiek joten dauenien “ffsss!” txistuke eta “uuu!” txakurren zaunkek entzuten direnien...

Esan ohi dute Martin abade ehiztari amorratua zela.

Egun batean, meza ematen zihardueela, txakurra zaunkaka entzun eta “han erbia, erbia” bat edo batek esan ziola eta meza emateari utzi eta txakurrarekin ehizan joan zen Martin abade hori. Meza erdizka utzita alde egin zuela eta harrezkero hor dabil haizeak joten duenean “fiss!” txistuka eta “uuu!” txakurren zaunka eta uluekin.

Aramaixoko mugie

Julian Unzueta

Esaten daue Aramaixo eta Otxandixo arteko mugie marketako, goxien egune zabalketan auenien, oillarrak joten auenien, urten biher euela Otxandixotik batek eta Aramaixotik bestiek, nun tril egitten euen hantxe jarriko euela mugarrixe.

Baiñe aramaixoarrak tranpa egin eutsiela otxandixoarrai, ze oillar horri kandelie jarri eutsiela, eta kandelaren argixaz oillar horrek goxeko ordu bixetan kantau auela. Eta aramaixoarrak urten auela, eta Otxandixokue atara zanien erreka ondora aillegau zanien –Otxandixoko errekie bastante Otxandixoko entradan bertan dau–, geratu egin zala erreka kontran pasau barik.

Esaten dute Aramaio eta Otxandio arteko muga markatzeko, goizean eguna zabaltzen zuenean, oilarrak jotzen zuenean, irten behar zirela bat Otxandiotik eta Aramaiotik bestea, eta tril egiten zuten lekuan jarri behar zutela bi herrien arteko mugarria.

Baina aramaioarrek tranpa egin zieten otxandioarrei. Izan ere, kandela-argia jarri zioten oilarrari eta oilarrak goizaldeko hiruretan edo ordu bietan jo zuen. Eta Otxandiokoa atera zenean erreka ondora ailegatu zen –Otxandioko erreka herriko sarreran bertan dago–, eta han geratu zen beste aldera pasatu gabe, han zegoelako Aramaiokoa.

Regalarme si tienes dirua nahikua

Luzia Arrizabalaga

Regalarme si tienes
dirua nahikua
Pendientes y medalla
katai urrezkua
Guantes y el amanico
eta soinekua
De rico terciopelo
moda berrikua
No solo eso Anita
sedazko alpiñak

Las medias con sus ligas
eta oinetako arinak
Con el polvo de niño
pintatzeko ezpainak
No creo tanto dinero
zuk daukazunik
Me habras creído buscarme
gezurrak esanik
Porque un millón de veses
ikusi zaitut nik
Con la gran filosera
zutik joan ezinik.

Axeriko eta otsoko

Kontxi Garitonandia, Felisa eta Margari Arana

Iretargixe potzuen ikusten dozu eta ezin harrapau... Bazan potzu haundi bat, eta han inguruen azerixe eta otsue. Eta otsuek esaten auen: “Nik zeozer jango neuke ba!”. Eta azerixek potzure begittu eta han gaztaie ikusi eta: “Hori ur hori edaten badok, hori gaztai hori hiretako izengo dok!”, esan eutsen otsueri.

Eta, gosiek, hasi zan otsue ure edan eta ure edan, baiñe ha gaztaie ezin harrapau. Iretargixe zan erreflejaute potzuen!

Ilargia putzuan ikusten duzu eta ezin harrapatu. Behin otsoa goseak amorratzen zegoen eta esan omen zuen:

–Nik zerbait jango nuke, bada!

Eta azeriak ilargia ikusi zuen putzuan eta esan omen zion otsoari:

–Ur ori edaten baduk gaztaia hiretako izango duk!

Baina ura edan eta ura edan, eta gaztaia ezin harrapatu! Ilargia ikusten baitzen putzuan islaturik!

Papargorrixe eta buztenikarie

Jesus Mari Elejalde eta Faustina Ibabe

Baoien amabirjiñie Jesuseaz, eta samarra sartu eijakon begixen Amabirjiñiari.
Eta nok atarako eta papargorrixe eta buztenikarie juen ziren.
Papargorrixek egitten auen ispillu moduen. Eta, bittertien, buztenikariek begixe garbittu eta samarra kendu eutsen.

Amabirjina Jesusekin bidez zihoala, samarra sartu zitzaion begian Amabirjinari.
Eta begitik samarra ateratzeko bi txori joan ziren.
Papargorriak ispilu egiten zuen eta buztanikarak samarra kendu zion, begia garbitu.

Hontza zegaittik bizi zan gabez

Patxike Ibabe

Gure amak kontetan euskun hontza luma barik auela eta txorixek apur bat penaute bizi zirela. Esaten euen: “Zer egingo dogu guk txori honekin? Guk lumak daukogu, eta horrek ez dauko bat be”. Eta esan euen: “Hainbeste txori klase gaz, bakotxak emungo deutsagu luma bat!”.

Eta bakotxak emun eutsen lumarik polittena hontzari.

Eta jantzi da lumaz hontza… Eta aurkittu zan hain dotore, ez eutsien agur be egin, esker on bat be emun.

Eta orduen esan euen txorixak: “Guk luma eder bana emun deutsagu, eta berak eskerrik emun be ez? Ba, orduen, orain gabez urtengo dau txori horrek, gabez!”.

Gure amak kontatzen zigun hontza lumarik gabe jaio zela eta gainerako txoriak penatuta zeudela, eta esaten zutela:

–Zer egingo dugu txori honekin? Gu lumaz jantzita gaude eta horrek ez dauka bat bera ere!

Eta erabaki zuten:

–Bakoitzak emango diogu luma bat eta, hala, hainbesteren artean jantziko dugu.

Eta bakoitzak eman dio lumarik politena hontzari, eta jantzi dute lumaz. Eta hontzak hain dotore aurkitu zuenean bere burua, ez zien agurrik egiten txoriei eta esker on bat ere ez zien ematen. Eta orduan gainerako txoriek esan zuten:

–Hontzak orain guri begiratu ere ez digu egiten eta eskerrik ere ez digu ematen. Bada, orduan, gauez irtengo da, gauez!

Hau Lastue, Lau mandue

Luzia Arrizabalaga

Hau astue
hau mandue
hau bixue
hau bettor
astue garitarako
mandue egurretarako
neska txikixe
mutil txikixe
barriketarako
tarako.

Txutxurrutxu mañe

Luzia Arrizabalaga

Txutxurrutxu mañe
Nun da aittejaune?
Zeruetan jaune
Zetan zeruetan?
Artue karanketan
Artue zetako?
Olatie eitteko
Olatie zetako?
Abariendako
Abarie zetako?
Mezie emuteko
Mezie zetako?
Aingerutxo bixen erdixen
zerure jueteko.

Herriko inddertsue

Jesus Mari Elejalde eta Julian Unzueta

Timoteo Añibarrokue forzudo bat zan, inddertsue! Txarrixek hiltten ibiltten zan etxerik etxe.

Egun baten, Aramaixoko plazan, titiriteroren bat etorri zan hartz haundi bateaz.

Hartz horren jokue zan ia zeiñek botaten dauen. Jarten da hanka bi gaiñien eta inddertsue eta danak botaten zittuen hartz horrek.

Timoteok ikusi auenien bota biher dauela –itxurie, haundixe zan hartz hori–, zer egin eutsen? Tripatik heldu eta pultsuen altzau! Hirurehun kilotik gora euko auen hartz horrek.

Eta atzera altzau auen hartza Timoteok, eta gero atzera.

Hartz hori hasarretu zan, eta haren ugezabak esan eutsen Timoteori: "¡Márchate, márchate!". Eta hartza kaixolan sartu eta desaparezidu zala titiritero hori.

Timoteo Añibarrokoa indartsua zen, ikaragarri indartsua, eta txerriak hiltzen ibiltzen zen etxerik etxe.
Egun batean Aramaioko plazara komediante bat etorri zen hartzarekin. Hartz hori, plaza erdian, hanka biren gainean tentetu eta aurrean jartzen ziren guztiak botatzen zituen. Timoteo hartzaren aurrean jarri zen, eta ikusi zuenean bota behar zuela, tripatik heldu eta pultsuan altxatu zuen. Hartzak hirurehun kilotik gora izango zituen. Hartza haserretu zen, eta orduan ugazabak esan zion Timoteori: "Márchate, márchate".
Eta hartza kaiolan sartu eta desagertu zen komediante hura.

Ostarkue

Faustina Ibabe eta Ines Beitia

Ostarkuaren azpittik pasau ezkero neska mutil bihurtzen da eta mutille neska. Eta nundik nora doie ostarkue? Errekatik errekara. Betik ikusiko dozu ostarkue errekan sortzen dala, errekatik errekara doiela ostarkue.

Ostarkuaren azpitik pasatuz gero neska mutil bihurtzen da eta mutila neska. Eta nondik nora doa ostarkua? Errekatik errekara. Beti ikusiko duzu ostarkua errekan sortzen dela, errekatik errekara doala ostarkua.

Esker onak

Eustaki Agiriano, Bizente Agirre, Felisa eta Margari Arana , Teresa Arriolabengoa, Luzia Arrizabalaga, Ines Beitia, Jesus Mari Elejalde, Maria Etxebarria, Kontxi Garitonandia, Faustina Ibabe, Juana Ibabe, Patxike Ibabe, Petra Isasmendi, Juan Ander Jauregi, Bizenta Kortabarria, Iñaki Larrañaga, Jazinto Leizterrena, Patxi Madina, Joxe Mari Ormaetxea, Konsuelo Salaberri, Julian eta Paula Unzueta.